

arteleku

04

JUNE

UZTAILA

AGOSTO

SEPTEMBER


Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



JUNE-SEPTEMBER

EKAINA-IRAILA

JUNIO-SEPTIEMBRE



EKAINAK 1-2-3

Audiolab. Audio eta musika garaikideko laborategia
Une erabakiorra/ El momento decisivo/ The decisive moment

Lantegia

Koordinatzailea: Xabier Erkizia. Ertz. www.ertz.net

Gonbidatuak: **Keith Rowe, Oren Ambarchi, Toshimaru Nakamura, Christian Fennesz**

Nazioarteko eszena esperimentaleko azken hamarkadetako izen garrantzitsuenetakoak, Rowe, Nakamura, Ambarchi eta Fenneszek gitarra bezalako musika tresna herrikoia soinu ertzetara eta egoera nahiz leku imajinaezinetara eraman dute. Bapatekotasuna, elektronika eta tresna honen historiaren, izaeraren eta erabileraren inguruan egindako ikerketa izan dira, musikari hauek, gitarraren bidez, gaur egungo musika produkzioaren oinarriak berreraitzera eraman dituzten arazoak. Lantegi honetan, hainbat alderdi landuko dira, halanola, musikaren oinarritzko ezaugarriak, arte plastikoekin duten erlazioa edo ibapatekotasuna.



EKAINAK 4-5

Copyleft: publikoa denaren indarra
Jabetza intelektual eta komunitatekoa dena pribatu bihurtzearen arazoari buruzko jardunaldi kritikoa

Malaga

Hitzaldiak

Koordinatzailea: 2005ean, Malagan III. Copyleft Jardunaldiak sustatu zituen taldea

Gonbidatuak: **Jorge Cortell, Ignacio Escolar, Miquel Vidal**

Koprodukzioa: Arteleku- Gipuzkoako Foru Aldundia eta Andaluziako Nazioarteko Unibertsitatea (UNIA arteypensamiento)

Hainbat gai izango ditugu hizka-mizka jarduteko: boteretik, herri ondasunez birjabetzeko gizarte dinamika kriminalizatu nahi duten eta kultur eta gizarte jakintzaren ekoizleei eta/edo partekatzaileei honelako edo halako korporazioaren, enpresa sozietatearen edo egileen beraien galera edo irabazi ekonomikoaren ardura dutela sinistarazi nahi dieten jardunbide diskurtsiboek buruzko eztabaida; adimen kolektiboaren pribatizazioari aurre egitea; prozesu hau alderdi positibotik burutzen ari diren adierazpideetatik abiatzea (*software librea*, musika librearen aldeko mugimendua, eta abar); "artista" jeniotzat ikusten duen ideia baztertzea eta artistari publikoagoa eta xumeagoa den izaera ematea, "konpositore" edo "birkonpositorea", esate baterako (irudiena, keinuena, soinuena, doinuena, kodearena); materiagabeko ekoizpenaren (*brainworker*) fenomeno berrien egungo egoera eta fenomeno horiek banaketa librearen eskubideekin duten harremanaz gain, *copyright*en oinarritutako ekoizpena berrantolatzeke era berriak ere aztertzea; ezagutza askatzeko forma horiek bideratzeko eta kapitalaren *enclosure* (itxitura) berriei buru egiteko ekintzak eta guneak sustatzea, eta horri guztiari *copyright*en erasoetatik babesten gaituen izaera juridiko eta erreala ematea (hala nola, *creative commons* izeneko baimen berriak).



EKAINAK 7-8-9

Kultura eta gizartea. Errealitatea etetea bizitzeko: eszeptizismoa, errepresentazioa eta identitatea


Doktorego ikastaroak

Mintegia

Koordinatzailea: Mikel Iriondo

Gonbidatua: **Carlos Thiebaut**

Mintegi hau UPV/EHUko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologiako Departamentuak 2003-2004 ikasturterako titulu berberarekin antolatutako Doktoretza programaren parte da, eta Departamentu horren Estetika Sailaren eta Artelekuren artean izenpetutako elkarlan akordioari esker burutuko da. Ekimen honek topagune eta elkarlanerako aukera berriak bultzatu nahi ditu estetika arazoei buruz, bai unibertsitateko bai bestelako ikasleentzat edo ikertzaileentzat. ikastaroa Stanley Cavellen iradokizun batetik abiatzen da: eszeptizismoaren ezinbestekotasuna (nahiz faltsutasuna) jarrera filosofiko gisa ez ezik, garrantzizko jarrera gisa ere eguneroko bizitzan. Uler daiteke errepresentazioko gure kultur sistema askok (antzerkiak eta zineak) arian jartzen dutela oreka hori, errepresentazioaren egiaren eta gezurraren arteko hori, haren ezinbestekotasuna eta haren muga, eta, hain zuzen ere, horregatik dira gaur egungo identitatearen era burutsuen eraikuntza guneak.



EKAINAK 10

Tester. Trabajo de nodos/ Adabegiak lanean/ Nodes at work

Liburuaren aurkezpena

Koordinatzailea: Rodríguez Fundazioa. www.fundacionrdz.com www.e-tester.net

Gonbidatuak: **Marina Grzinic, Oliver Ressler, Ibon Sáez de Olazagoitia, Xabier Barandiaran, Xabier Erkizia, Kirmen Uribe, Iñaki Arzoz, Hito Steyerl**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Artelekuk ekoiztua, Eusko Jaurilaritza babeslea duen delarik.

Tester izeneko sistema gogoeta kritikoa eta lanerako formula alternatiboak hautematera bideratuta dago, gaur egungo sorkuntza ingurunean. Horrela bada, hautemate sistema da. "Erizoma" motako erreferentzian oinarrituta dago, eta "periferia" ideia du erdigune, periferia kulturaren, egungo sortze lanaren eta, bereziki, multimedia arte-jardunaren "gune ilun" gisa ulertzen delarik. "Tester" lanak lankidetzaren proposamenak eskaintzen ditu, proposamen deszentralizatuak, desberdinak diren eta bata bestetik urruti dauden proiektuen, ekimenen, taldeen, artisten, kolektiboen, helbideen edo tokien arteko hainbat ezaugarri azpimarratzen dituztenak -hala nola, "Dot it yourself", "Home tech" eta "urrutiko lana"- . Argitalpenak, hiru zatitan banatuta, agerian jartzen du era grafikoan, edukien aurkibidean, Tester sarearen zabalpena, bai eta sareari eusten dioten adabegien lana ere. Adabegi edo koordinatzaile horietako bakoitzak, bere testua eskaintzeaz gain (1. atala), 2. atala osatzen duten ekarpen teorikoak egin dituzten kolaboratzaileak gonbidatu ditu. Bestalde, 3. atalean, Tester lanaren hurrengo fasean ekoiztuko diren artisten proiektuak aurki daitezke.



EKAINAK 14-19

Arabiar irudikapen garaikideak. Diskurtso kritikoak eta pentsamendu politikoa

Mintegia: eztabaida foroak eta hitzaldiak; proiektzioa, erakusketa

Koordinatzailea: Gema Martín Muñoz

Gonbidatuak: **Salima Ghezali, Aboubakr Jamaï, Michel Khleifi, Tariq Ramadan, Eyal Sivan, Nadia Yassine**

Arabiar irudikapen garaikideak es proiektuaren zuzendaria Catherine David da eta Rotterdango Witte de With etaartzelona AntoniTàpies Fundazioa dira antolatzaileak eta ekoizleak Andaluziako Nazioarteko Unibertsitatea (UNIA artepentsamieto) eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Artelekuren laguntzaz.

Mintegi honetan, mahai gainean jarri nahi dira -eztabaida gai ezberdinetan inplikaturaduden puntatuntako aktoreekin- arabiar munduarekin, Ekialde Erdiaren eta Islamarekin ditugun harremanetan sortzen diren gaitako asko: Irak eta Palestinako lurraldeak okupatzearen ondorioak; eskualde horretako bilakaera politikoa azterketa krisialditiateratzeko; nazioarteko herriek eta mendebaldeko potentziek betetzen duten papera, eta bete beharko luketena; alderdi politikoen azterketa eta gaur egungo hautabide politiko diren aukerak; Islamaren egitekoa hautabide horretan; giza eskubideen egitekoa eta "terrorismoaren aurkako borroka"ri buruzko iritziak.



EKAINAK 14 - UZTAILAK 18

Mugatxoan

Arteleku 06/14 - 07/03

Serralves 07/4 - 07/18

Lantegia, performances

Arte zuzendaritza: Blanca Calvo + Ion Munduate. www.mugatxoan.org

Koordinazioa: Teresa Carranza

Gonbidatuak: **Ion Munduate, André Guedes, Tino Sehgal, Grand Magasin, Eva Meyer Keller, Edurne Rubio, Maria Jerez, Larraitz Torres, Juan Dominguez**

Koproduktzioa: Arteleku -Gipuzkoako Foru Aldundia eta Fundação Serralves (Porto).

Mugatxoan 2004k piezen emaitzan prozesuak duen eragina partekatzea, berrikustea, berregitea eta aztertzea proposatzen du. Hamabi artista gazteren proiektuak aukeratuko dituzte eta bere prozesuan aurrera jarraitzeko espazioa eta denbora eman. Lantegi honen helburua ez da soilik pieza bat produzitzea, baizik eta artista gisa moldatzeko eta kokatzeko estrategiak garatzea. Ekainaren 14an hasiko da Artelekun, eta uztailaren 18an amaituko da Fundação Serralvesen. Oporton. Bost astetan zehar aukera izango da artista gonbidatuekin proiektuak partekatzeko. Gainera, zentro bietako hainbat espaziotan estreinaldiak, proiektu espezifikokoak, pieza gogoangarriak, lehen piezak eta obra berrikusiak aurkeztuko dituzte.



EKAINAK 23

Audiolab. Audio eta musika garaikideko laborategia

Templo-ek aurkezpena

Hitzaldia, Kontzertua

Koordinatzailea: Xabier Erkizia. Ertz. www.ertza.net

Gonbidatua: **Luis Marte**

Luis Marte, Pablo Reche edo Jorge Haro-kin batera, maiz lan egiten duenekin batera, argentinarraren eszena elektronikoaz hitzegitean haipatu beharreko erreferentzia dugu. 1995ean egindako bere lehenengo grabazioetatik, 2002ko "Ahotsak" bere azkeneko lanera, elementuen arteko sintesi jarraitu bat dago, non filtro arriskutsu eta pertsonal baten bitartez, soinu extremuetatik pop-aren inguruko terrenura joaten den soinu experimentazioa sortzen duen. 1993-an, Pablo Reche-rekin batera Fuga Cómica lehenengo musika taldea sortuko du. Urte bat beranduago bere lehenengo lana grabatzen hasiko da, Fuga Records diskaetxe independentea sortzen duen bitartean. 1999an Zigo-rekin batera zigilu berri bat sortzen du, Optional Records, honen bitartez "De Super Acción" diska kolektiboaren produkzioaren zuzendari izanez. "Fuga Jurásica" multimedia ikuskizunaren arduradun da, bai eta "Bernardino Rivadavia" Argentinako Zientzia Naturalen Museorako musika ekitaldien sortzailea.



UZTAILA

Zehar

Zehar aldizkariaren 53. zenbakiko dosierrik musika esperimentalari izango du gai bakarra, eta "Entzutearen ikuspegiak" izenburupean, gure bizitzan soinua hartzen duen gero eta zabalkuntza handiagoa aztertuko du. Teknologien eragina, entzulearen eta artistaren arteko harremana, konposizioaren eta inprobisazioaren arteko mugak haustea, eta emanaldi kontzeptua dira monografikoak ukituko dituen alorretako batzuk.

"Sarean" sailean, gaurkotasuna duten erakusketa, hitzaldi, emanaldi, film eta argitalpenei buruzko berri laburrak aurkituko dituzu.

Zehar 53. zenbakariaren argitalpena uztailean kaleratuko da. Edizio elektronikoan -www.zehar.net helbidean-, dosierra hiru bertsiotan eskuratu ahal izango duzu: Zehar gaztelaniaz, Zehar euskaraz, Zehar ingelesez. Aldizkaria etxean jaso nahi baldin baduzu, hurrengo helbidean eska dezakezu: arteluku@gipuzkoa.net. Edo bestela, harpidetza elektronikoa egin dezakezu, helbide honetan: www.zehar.net



UZTAILAK 1-30

Litografia

Lantegia

Koordinatzailea: Don Herbert

Urte askotako bide luzean, Artelekuk urtero antolatuta izan ditu artistentzako litografia lantegiak, Don Herbert maisuaren zuzendaritzapean. Lantegi horren helburua izan da artista litografiaren tekniketan mugilaraztea. Aurtun, berriz ere, estanzazio prozesua hasieratik bukaeraraino landuko dugu lantegi honetan, eta artistak berak egingo ditu lan guztiak: papera prestatu, estudioa txukundu eta muntatu, matrizearen trataera kimikoa egin eta estanzazioa bera bukatu; beti ere, Don Herbert estanzatzaile maisuak gainbegiratu du prozesu osoa.



UZTAILAK 5-7

Salbuespen egoera. Praktika estetikoak eta lan era berriak (1972-2004)

2. azterketa kasua. Index, 1972

Mintegia, hitzaldiak, erakusketa

Koordinatzailea: Carles Guerra

Gonbidatuak: **Michael Baldwin, Mel Ramsden y Philip Pilkington (Art & Language)**

Beren arteko arte elkarrizketa irudikatzen saiatu zen *Art & Language* 60ko hamarkadaren bukaeratik 70ko hamarkadaren erdi aldera bitartean. Testu kopurua ikaragarria zenez, elkarrizketa hori erakusketaren espazioan txertatu nahiz izateak arazo ugari ekarri zizkien diskurtsoaren irisgarritasuna, sozializazioa eta berreraikuntza erabakitzeko orduan. Index sailek beren interesgarritasun osoa mantentzen dute, jakintza ekoiztu, zabaldu eta biltegiatzeko modu bitxiak direnez gero. "Arte kontzeptualaren" bide bazterrean utzi dituen historiaren eraginez gaur neurri batean galdurik eta desitxuraturik dauden jokamolde horietara berriro hurbilduz, berriro piztu eta geureganatu egingo ditugu, guretzat mesedegarri izan daitezkeen alderdiez baliatzeko. *Art & Language*-ko kide nabarmenetako hiruk gozotz hartuko dute parte jolas horretan.



UZTAILAK 12-16

MID_E. Nazioarteko Erakustaldia Euskaditik

Lantegia

Koordinatzailea: Yox Colectivo. www.mid-e.com

Babesleak: Gipuzkoako Foru Aldundia (Arteleku, Koldo Mitxelena Kulturunea, Gaztemaniak), Eusko Jaurlaritzako kultura saila, Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatea.

MID_E nazioarteko lehiaketa Europako artista eta sortzaile berriei zuzenduta dago; haien lanak, hurrengo sortze-alorretako baten barruan kokatu behar dira: *moda independentea*, moda alorreko ekimenak, nahiz komertzializazioaren nahiz sormen esperimentazioaren ikuspegia dutenak; *irudi elektronikoa*, barne sartzen dira bideo alorreko sortze-lanak, bideojokeya, multimedia alorreko sortze-lanak, net- art, cd- art, software- art; eta *Dj-musika sorkuntza*, musika sortzeko nahiz discjokeyen eta musikagileen musika birlantzeko proposamenak onartzen dira, estiloa edozein izan daitekeelarik. Artistek, bestalde, beren banakako proposamenak koordinatuko dituzte, partekatua izango duten erakusketa estrategiaren barruan, eta proposamen horiek horretarako prestatuak egongo diren tailerretan garatuko dira.



UZTAILAK 23

Audiolab. Audio eta musika garaikideko laborategia

Kontzertua

Koordinatzailea: Xabier Erkizia. Ertz. www.ertza.net

Gonbidatuak: **Aerospace Soundwise (Chicago), Ilios (Grecia), Coti K. (Grecia)** + gonbidatuak

Chicagoko musika eszena bikain, aberats eta amaigabearen bertze perla bat da Todd A. Carter-en lana. AEBko hiri hartako mugimenduko hainbat grabaketaren erantzule, Tv Pow (www.tvpow.net) hirukote elektronikoko bereziaren sortzaile eta partaide, eta Aerospace Soundwise izenpean, konposatzaile bikaina da Carter. Ilios eta Coti K. musika eszenan diren bi musikari interesgarrienetakoak dira. Ilios diskaetxe baten jabe da, Antifrost (www.antifrost.gr) eta Electrograph (www.electrograph.gr) festival bat.



ABUZTUAK 2-13

Serigrafia. Hastapena

Tailerra

Koordinatzailea: Nerea Zapirain

Tailer honetan parte hartzen dutenek serigrafia ikasteko eta teknika horri buruzko ezagupenak sakontzeko aukera izango dute. Era berean, serigrafiaz praktikatu ahal izango dute, beren arte proiektuak gauzatzeko ahalbidetuko dien irtenbide bat aurkitzeko; serigrafia garatu nahi duten ideien prozesuaren zati batean edo prozesu osoan erabiltzeko aukera izango dute, arte forma edozein delarik ere.



ABUZTUAK 30-31

Avid. Hobekuntza

Lantegia

Koordinatzailea: Gabriel Corbella

AVID sistemaren inguruko hainbat mikrolantegi -hamaseina ordu- eskaintzen jarraituko dugu, AVID sistemari etekinik handiena ateraz gero baldintza egoki-egokietan bideratu ahal izango diren arazo espezifikoaren konponketan lan egitearren. Lantegi hauetan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da sormenezko proiektu baten lan-prozesuan egotea. Lantegi bakoitzean aurkeztzen diren proiektuak denen aurreko azalpen batez bideratuko dira, AVIDen teknikariaren lankidetzaz. Horrela jokaturik, lantalde bakoitzak hainbat alderdi tekniko jorratu beharko ditu, proiektu bakoitzaren arazo espezifikoak bideratzen diren aldi berean. Aurten ahailegin berezia egingo da hobekuntza ikastaroetan. Dagoeneko hastapeneko ikastaroa egina duten edo AVID sistemari buruz gehiago jakin behar duten pertsonen zuzendutako lantegiak egingo dira.



IRAILAK 6-7-8

Salbuespen egoera. Praktika estetikoak eta lan era berriak (1972-2004)

3. azterketa kasua. Untitled Slide Sequence, 1972

Mintegia, hitzaldiak, erakusketa

Koordinatzailea: Carles Guerra

Gonbidatuak: **Allan Sekula eta Maurizio Lazzarato**

Lantegiaren irteeran ateratako diapositiba-sekuentzia batek lantegi barruko lan erritmoa birsortzen du. Lan antolamenduaren ezaugarri den serie-ekintza irudikatzen du argazkiak, nola argazkia hala lana gertaeren isuria irudikatzeko moduak direnez gero. Orduz geroztik, Allan Sekula beti ikertu du lanaren irudikapena bere argazki saioen bidez. Serie berriagoetan, esate baterako, globalizazioaren aurka Seattle-n egindako lehen manifestazioei buruzkoetan, gertaera hausnartzeko beharra azpimarratzen du. *Untitled Slide Sequence* izango da eztabaidaren abiapuntu eta langintza horretan lankide izango dugu manifestazio global horien izaerari buruz saio bat argitaratu berri duen Maurizio Lazzarato. Argazkiak, lanak eta gertaerak kasualitate global eta bateratzaile moduko bat sortzen dute eta horren etorkizun-indarra luze eta zabal aztertu beharko genuke.



la/repolitización,
del/espacio/sexual/en,
las/prácticas/artísticas,
contemporáneas,
8/15/septiembre/2004,

IRAILAK 8-15

Sexu gunea berriro politizatzea egungo arte jardunetan

Mintegia eta hitzaldiak

Koordinazioa: M^a José Belbel, Erreakzioa-Reacción (Estibaliz Sadaba-Azucena Vieites)

Gonbidatuak: **Beatriz Preciado, Itziar Okariz, Laurence Rassel, Cecilia Barriaga, Laura Cottingham, Laura Kipnis, Terre Thaemlitz, María Ibarretxe**

1997. urtean, Erreakzioa-Reacción kolektiboak *Zure begietarako bakarrik: Feminismoaren faktorea arte bisualak direla eta* izenburuko taller-mintegia antolatu zuen Artelekurako. Proiektua feminismoaren teoria, arte jardun eta aktibismoari lotutako gaien inguruan antolatu zen. *Zure begietarako bakarrik* ikuskizunak teoria ardatz bat izan zuen nagusi: feminismoak eta horien subjektu politikoa, emakumeak, alegia. Taller-mintegi hori gauzatu zenetik gaur egunera arte, hainbat diskurtso proposamen eta arte jardun garatuz joan dira Estatu espainiarrean, queer politiken inguruan. *Queer* politikak Estatu Batuetan sortu ziren, laurogeiko hamarkadaren bukaeran, eta generoaren izaera naturala eta sexu identitatea problematizatu egin dituzte monolitiko eta egonkor gisa. Zazpi urte beranduago, proposatzen dugun mintegiaren bitartez, arte espazioan, feminismo kritikoaren eta *queer* politiken arteko lotunean sortzen ari diren diskurtsoak abiagune izan daitezten nahi dugu.



IRAILAK 9-10

Avid. Hobekuntza

Lantegia

Koordinatzailea: Gabriel Corbella

AVID sistemaren inguruko hainbat mikrolantegi eskaintzen jarraituko dugu, AVID sistemari etekinik handiena ateraz gero baldintza egoki-egokietan bideratu ahal izango diren arazo espezifikoaren konponketan lan egitearen. Lantegi hauetan parte hartu ahal izateko, ezinbestekoa izango da sormenezko proiektu baten lan-prozesuan egotea. Lantegi bakoitzean aurkezten diren proiektuak denen aurreko azalpen batez bideratuko dira, AVIDen teknikariaren lankidetzaz. Horrela jokaturik, lantalde bakoitzak hainbat alderdi tekniko jorratu beharko ditu, proiektu bakoitzaren arazo espezifikoak bideratzen diren aldi berean. Aurten ahalegin berezia egingo da hobekuntza ikastaroetan. Dagoeneko hastapeneko ikastaroa egina duten edo AVID sistemari buruz gehiago jakin behar duten pertsoneri zuzendutako lantegiak egingo dira.



IRAILAK 23 - URRIAK 30


Serigrafia. Hastapena eta esperimentazioa

Tailerria

Zuzendaria: Pepe Albacete

Koordinatzailea: Nerea Zapirain

Hastapena Tailer honetan parte hartzen dutenek serigrafiaren funtzionamendua eta oinarriko prozedurak nahiz berariazko makinaren eta tresnen erabilera ikasten hasteko aukera izango dute. *Esperimentazioa*. Tailer honetan parte hartzen dutenek serigrafia ikasteko eta teknika horri buruzko ezagupenak sakontzeko aukera izango dute. Era berean, serigrafiaz praktikatu ahal izango dute, beren arte proiektuak gauzatzea ahalbidetuko dien irtenbide bat aurkitzeko; serigrafia garatu nahi duten ideiaen prozesuaren zati batean edo prozesu osoan erabiltzeko aukera izango dute, arte forma edozein delarik ere.



IRAILAK 30 - URRIAK 6

VI. Nazioarteko Ontologia Biltzarra. Logos. Genetik hizkuntzara: gaiaren egoera (Wilhelm von Humboldt omenduz)

Biltzarra

Koordinatzailea: Víctor Gómez Pin

Gonbidatuak: Hilary Putnam, Steven Pinker, Christian de Duve, Jesús Mosterín, David Rosenthal, Javier Echeverría, Michael Ruse, Tomás Calvo, Pierre Pellegrin, Edoardo Boncinelli, Isidoro Reguera, Massimo Cacciari, Andrea Moro, Gerhard Vollmer, Giovanni Boniolo, Massimo Piatelli-Palmarini, Giorgio Graffi, Tomás Marco, Jorge Wagensberg, Alberto Cordero, Antonio Martín Moreno, Vicente Sanfélix, Andrés Moya

Erakunde antolatzaileak: Arteleku- Gipuzkoako Foru Aldundia, Euskal Herriko Unibertsitateko etaartzelona Unibertsitate Autonomoko Filosofia Departamentuek, Chillida Leku museoa. Koproduzioa: Arteleku-Gipuzkoako Foru Aldundia eta Venice International University.

V. edizioan (2002ko urrian egin zen) bizidunaren kontzeptuari heldu zitzaion eta, ikuspegi historikoa bazterrean uzteke, eztabaida garaikide zoragarrien eremutik jorratu zen gaia. Biologiak arkitektura-diziplinaren papera bete zuen, izugarri aberastuta inondik ere hizkuntzalaritzak, semiotikak, psikologiak, kimikak, fisikak berak eta, jakina, galdera kantiar zorrotz eta sakon baten prismaz (ba ote helburu-horizonte bat, biziduna denaren baitan gizatiarra modu “transzendentalean” bereizten duena?) ikusitako etika eta estetika erabili ikuspegiez. NOB-en VI. edizioaren helburuak aurrekoan abiatutako gogoeta luzatzen du; alabaina, biologiaren eta hizkuntzalaritzaren bidegurutzeko arazoak aztertzeko jauzia egiten du.